

62. ZENBAKIA. 2026



ENTREVISTA | Lander Beloki | Decano de la Facultad de Empresariales

“Barcelona Circular es un ejemplo muy claro de esta manera de entender la Universidad”



Zenbakia
BI ELETARA
Nº BILINGÜE



Zenbakia
EUSKARAZ



Ejemplar en
CASTELLANO



BIDEA URRATZEKO, EZ DUZU
ZERTAN **INFLUENCER** IZAN

ZEUREA DA ERABAKIA



HEMEN ERABAKI



ZU ZARA ULMA

Kanpaina honetan erakusten diren pertsonen irudiak adimen artifizialaren bidez egindako sorkuntza digitalak dira. Ez dira benetako pertsonen irudiak. Helburu argigarrietarako eta komunikaziorako bakarrik erabiltzen dira.

Barcelona Circular

Barcelona Circular-ek atek ireki ditu ekonomia zirkular eta eraldaketa industrialari lotutako jarduera ekintzailerako gune berri gisa. Hub berri hau Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultateak Mondragon Team Academy (MTA) ekosistemaren bidez bultzatutako ekintzaitzako laborategien Estatuko sare baten parte estrategikoa da. Fakultateko dekanok Lander Belokik eman dizkigu azalpenak.



AURKIBIDEA

- 03 Editoriala
- 04 Berriak
- 10 Erreportajea
- 13 Iritzia
- 14 Elkarrizketa
- 16 Unibertsitatea & enpresa
- 20 Komunitatea
- 23 Agenda

Exitosa edición de FLL Euskadi-MONDRAGON

Los equipos BKI BOX (Ikastola Bera Kruz, Markina-Xemein), NCLIC Shakespeare (NC Learning Investigation Center, Vitoria-Gasteiz) y C'Mon Guys (Colegio Madre de Dios, Bilbao) se han alzado con la victoria en la edición de este año de la FLL Euskadi-MONDRAGON, que se ha celebrado -por primera vez- en dos emplazamientos simultáneamente.

EDA Drinks & Wine-n lehen harria jarrita

EDA Drinks & Wine Campus-en, Basque Culinary Centerren ardoari eta edariei buruzko prestakuntza proiektu strategikoaren, lehen harria jarri zuten urtarrilaren bukaeran Biasterin egindako ekitaldi batean. Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak sustatuta, EDA Drinks & Wine funtsezko mugarririk estrategikoa izango da sektorearentzat. Ekitaldia Arabako Errioxaren bihotzean egin bazen ere, Gasteizko egoitzako lehen harria ere dagoeneko jarrita dago.

50 AÑOS REJUVENECIDOS

La Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación está celebrando 50 años desde que arrancó como escuela de magisterio. Es un hito enorme haber culminado un recorrido de medio siglo y haber crecido de tal manera. Ello se fundamenta en un colectivo de personas implicadas para formarse, innovar y experimentar y dar pasos pioneros en la enseñanza y en otros ámbitos de comunicación y transmisión; y en un corpus universitario y cooperativo, el de Mondragon Unibertsitatea, que tiene como foco adelantarse a las necesidades de la ciudadanía y también, claro, de la comunidad educativa.

Todo ello ha posibilitado que esta facultad haya crecido y se haya desarrollado de tal manera, proporcionando, además, a todo el entorno cooperativo una herramienta indispensable para medir, avanzar y mejorar el entorno y el fundamento de la herramienta cooperativa. Hablamos del Instituto de Estudios Cooperativos LANKI, formado en esta facultad que investiga con el cometido de transferir conocimiento y bienestar a la sociedad a la vez que busca su activación, que acaba de cumplir 25 años y que ofrece formación cooperativa a miles de personas cada año.

De la misma manera, la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación, pionera en muchos ámbitos y formatos, tales como la formación online hace ya décadas y muchos otros, abarca ya todos los aspectos de la comunicación, así como de la revitalización y puesta en valor de la cultura vasca, afincada en Eskoriatza, Aretxabaleta y Bilbao, y comprende su existencia abierta a toda la ciudadanía construyendo espacios polivalentes, impulsando sinergias con entidades públicas y asociativas y tejiendo redes transgeneracionales bajo el concepto de conocimiento continuo de por vida en cualquier formato.

"La facultad impulsa sinergias y teje redes transgeneracionales bajo el concepto del conocimiento continuo".



120 lagun elkartu ziren IdeiEnean LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiaren 25. urteurrena ospatzeko.

25 urte bete ditu LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiak

URTEURRENA OSPATZEKO, EKITALDI JENDETSUA EGIN ZUTEN ARETXABALETAKO CAMPUSEAN; BERTAN, LEHENAGOKO ETA ORAINGO KOLABORATZAILE ETA LAGUN UGARI ELKARTU ZIREN.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Kooperatibismoa indartu beharra zegoela ikusita, LANKI Kooperatibismoaren Ikertegia sortu zuen orain 25 urte Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. Ordutik, makina bat proiektu eta hezkuntza egitasmo bultzatu ditu taldeak; batez ere, Mondragon esperientzia kooperatiboaren testuinguruan. Hala, urte hauetan guztietan, kooperatibista askok hartu du parte ikertegiak eskainitako formazio, lan saio edo neurri egindako ikastaroetan; esaterako, 2024-2025 ikasturtean, 2.300 kooperatibista baino gehiagok hartu du parte formazioaren batean. Horrez gain, eskaintza unibertsitarioa ere badu LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiak: masterrak, aditu tituluak eta profesionalei zuzendutako zenbait ikastaro. Gainera, zabalkundearen ere jartzen du arreta ikertegiak eta era askotako ekoizpenak kaleratu ditu urte hauetan guztietan: aldizkariak, liburuak, artikulak, ikus-entzunezkoak...

Izan ere, bi helburu nagusi ditu ikertegiak: alde batetik, unibertsitateko ezagutza eta kooperatiben praktika uztartzea eta, bestetik, bertako eta kanpoko errealitatean eragitea hezkuntza kooperatiboa, ikerketa eta aholkularitza eta zabalkundearen bitartez. Helburu horiek lortzeko ezinbestekoa izan da ikertegiak kooperatibekin duen gertutasuna eta harreman estua. Ainara Udaondo Ikertegiko zuzendariaren hitzetan, "kooperatibentzat klabe izan diren momentuetan argia eman dugu ikerketaren bidez eta gero, hori, kooperatibataraz itzuli dugu hezkuntzaren bidez".

Ospakizun ekitaldia



LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiak mende laurdena ospatzeko ekitaldia egin zuen Aretxabaletako campuseko IdeiEnean. 120 pertsona bildu zituen ekitaldian, parte hartu zuten Ainara Udaondo zuzendariak, Vicente Atxa Mondragon Unibertsitateko errektoreak, Nagore Ipiña Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanok eta Xabier Egibar Laboral Kutxako zuzendari nagusiak, besteak beste.

Egindako lana aitortzeko balio izateaz gain, aurrera begira dituzten erronkei begira jartzeko aukera izan zen ekitaldia. Azken horren garrantzia azpimarratu zuen, hain zuzen ere, Nagore Ipiña dekanok definitu zuenean ekitaldia "komunitate baten memoria eta etorkizunaren ospakizuna".

Estudiantes publican un artículo científico en revista de tipo Q1



Ventajas y desventajas de los aerogeneradores en cascos urbanos o ciudades.

EL ARTÍCULO 'COMPARATIVA EXPERIMENTAL DE UN AEROGENERADOR AYANZ DE ASPAS EN TORNILLO CON UN AEROGENERADOR CONVENCIONAL TRI-PALA, BAJO CONDICIONES DE VIENTO PROPIAS DE LAS CIUDADES', ELABORADO POR ESTUDIANTES DEL MÁSTER UNIVERSITARIO EN ENERGÍA Y ELECTRÓNICA DE POTENCIA, HA SIDO PUBLICADO EN UNA REVISTA DE TIPO Q1, LA MÁXIMA CATEGORÍA.

Escuela Politécnica Superior | Este artículo ha comparado teórica y experimentalmente las ventajas y desventajas de los dos aerogeneradores citados, cuando operan ubicados en cascos urbanos o ciudades. Ambas configuraciones fueron probadas en un túnel de viento controlado bajo condiciones de viento estacionario y transitorio, incluyendo ráfagas sintéticas diseñadas para emular patrones de viento urbano. El análisis se ha centrado en evaluar la capacidad de extracción de energía del viento de cada aerogenerador, la capacidad de respuesta dinámica y la idoneidad de la integración en cascos urbanos. Las conclusiones del estudio muestran que el aerogenerador Ayanz, concebido y patentado hace siglos, es ventajoso para entornos urbanos.

Extrema rigurosidad en su elaboración

El equipo de trabajo, responsable del proyecto y autor del artículo científico, ha reconocido que le ha impactado "la extrema rigurosidad que exige el proceso de publicación, algo que dista bastante de la fugacidad de los proyectos que realizan en los semestres" a la que han estado acostumbrados en la Universidad. "Aunque el proyecto nació del PBL del máster, convertirlo en un artículo científico nos exigió una inversión de tiempo mayor para realizar una cantidad de ensayos adicional muy importante

para robustecer el estudio, obligándonos a una justificación minuciosa de cada detalle mucho más exhaustivamente que en los documentos redactados hasta ahora". Para concluir con que "ha sido una verdadera toma de contacto con el mundo de la investigación y hemos aprendido que en la ciencia no es suficiente con tener buenos resultados, sino que hay que ser capaz de justificarlos y transmitirlos correctamente.

Propuesta del equipo de máster

Tras la finalización del proyecto de semestre del primer curso del Máster en Energía y Electrónica de Potencia, el equipo de docentes propuso al grupo de estudiantes dar un paso más allá y publicar un artículo científico con los resultados que habían obtenido en el proyecto académico. Esta nueva actividad supuso un reto para el grupo de estudiantes, ya que sería la primera toma de contacto con el ámbito de la investigación.

Actualmente, los miembros del equipo están cursando el segundo año del máster y realizan su Trabajo Final de Máster en varias empresas: Ainara Angulo y Fabian Rodriguez en Orona, Unai Nazabal en CAF Power & Automation e Izaskun Rojo en CAF I+D.

¡Felicidades por el trabajo realizado!

Leinners finalistas en los premios de Bilbao Metropoli-30

OLATZ MARTIJA CALVO Y ANNE DEL MORAL, ESTUDIANTES DE LEINN Y FUNDADORAS DE DUARA, HAN LLEGADO A LA FINAL EN LOS PREMIOS DE BILBAO METROPOLI-30 EN LA CATEGORÍA DE 'MODELO CIRCULAR DE LA INDUSTRIA DE LA MODA'.



Parte del equipo de Duara.

Facultad de Empresariales | El compromiso de la comunidad LEINN con la sostenibilidad y el impacto global vuelve a destacar. En esta ocasión, el reconocimiento llega de la mano de The Bay Awards - Metropoli Edizioa, unos premios que ponen en valor proyectos que transforman el territorio y su imagen exterior; y el protagonista es Duara Innovation Agency, un colectivo internacional que une a 10 personas emprendedoras de cuatro países bajo la misión de combatir los residuos textiles; y su proyecto estrella, 'From Waste to Fashion' (De residuo a moda), ha logrado dar un giro radical al concepto de diseño sostenible.

Innovación e impacto social en el Sur Global

Duara crea espacios en centros comerciales donde jóvenes diseñadores locales transforman desechos textiles de marcas de proximidad en nuevas piezas de diseño, todo ello frente a una audiencia en vivo. Este formato no solo innova en el proceso creativo, sino que educa al consumidor sobre la percepción de los residuos en España e India, con planes de expansión próximos a Alemania, Corea y Finlandia.

Más allá del diseño, Olatz Martija y Anne del Moral están escalando su impacto mediante el desarrollo de una startup tecnológica. Su objetivo es abordar el volumen crítico de residuos textiles que terminan en vertederos del Sur Global procedentes del Norte. "Nuestra misión fusiona innovación e impacto social. No solo queremos combatir la contaminación ambiental, queremos mejorar la vida de las personas que conviven con los residuos textiles mediante el empleo sostenible", explican las fundadoras.

Lehen harria jarrita, badator EDA Drinks & Wine Campus

Basque Culinary Center - Facultad de Ciencias Gastronómicas | EDA Drinks & Wine Campus-en, Basque Culinary Centerren ardoari eta edariei buruzko prestakuntza proiektu estrategikoaren, lehen harria jarri zuten urtarrilaren bukaeran Biasterin egindako ekitaldi batean.

Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak sustatuta, EDA Drinks & Wine funtsezko mugari estrategikoa izango da sektorearentzat. Horren erakusle da ekitaldian Amaia Barredo Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak; Ramiro González Arabako diputatu nagusiak; Joxe Mari Aizega Basque Culinary Centerreko zuzendari nagusiak; eta Arabako Errioxako upeltegietako ordezkariak zein mahastizaintza eta ardogintzari lotutako zenbait elkarte eta erakundek parte hartu izana.

EDA Drinks & Wine Campus proiektuaren Biasteriko egoitza hartuko duen lursailean jarri zen lehen harria. Talentua, bikaintasuna eta mundu akademikoaren eta produkzio sektorearen arteko lotura bultzatzeko xedea du gune horrek.

Amaia Barredo Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak adierazi zuenez, "hemendik, Biasteriko EDAtik, Euskadin ardoaren sektorearen eraldaketa gidatuko duten pertsonak aterako dira. Produktu, zerbitzu eta negozio eredu berriak garatuko dituzten profesionalak. Hemen sortuko den ezagutzak gure sektoreari aukera emango dio lehiakortasuna indartzeko egungo exigentzia handiko testuinguruan, baita merkatu berriak irekitzeko ere".

Joxe Mari Aizega Basque Culinary Centerreko zuzendari nagusiak azpimarratu zuen "EDA Drinks & Wine Campuseko obren hasiera mugari estrategikoa bat dela Basque Culinary Centerrentzat eta edarien eta ardoaren sektore osoarentzat. Proiektu hau prestakuntza, ikerketa, berrikuntza eta ekintzazailtza nazioarteko erreferente bihurtzeko bokazioarekin sortu da, ezagutza, lurraldea eta ardoaren eta edarien sektorea elkarrekin lotuz". Gaineratu duenez, "EDA gune paregabe

eta irekia izango da etorkizuneko erronkei aurrea hartzeko, talentua bultzatzeko eta ikuspegi global eta jasangarri batetik eragin ekonomiko, sozial eta kulturala sortzeko".

Ekitaldia Arabako Errioxaren bihotzean egin bazen ere, Gasteizen eta Biasterin aldi berean eraikiko dituzte bi egoitzak. Laster lehen harria jartzeko ekitaldi bat egingo da Gasteizko hiriburuan ere.



Erakunde bultzatzaileetako partaideak Biasterin, lehen harriaren ekitaldian.

Deñe Garcia-Bravok eta Mikel Balerdik irabazi dute Huhezinema

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Ikusentzunezko Komunikazioa graduako Deñe Garcia-Bravo eta Mikel Balerdi ikasle ohiek irabazi dute Huhezinema Euskal Film Laburren jaialdiaren 19. edizioa. 'Eraman zutela' dokumentalak Olaberriaren jazotako Martzelo Lasa eta Jesus Bujanda fusilatuta eta desagertuen gertaera ekartzen du argitara. Film labur honek irabazi du, gainera, ikusleen saria.

Bideoklip saria Ximon Agirrek eta Alex Perezek eskuratu dute, TOC taldearen 'Emoie' bideoklipagatik. Bestalde, Mondragoan Unibertsitateko ikasleek lan saritua izan da Aner Olaizolak egindako 'Harrigorena' film laburra.



Aurtengo edizioako irabazleak.

Profesionalei zuzendutako ikastaroen katalogo berria

PROFESIONALAK ETENGABE PRESTATZEA ETA EGUNERATUTA EGOTEA GERO ETA GARRANTZITSUAGOA DA BATEZ ERE ARLO TEKNIKO ETA TEKNOLOGIKOAN. HORREGATIK, GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK ETENGABEKO EGUNERAKETA EGITEN DU PROFESIONALENTZAKO PRESTAKUNTZAREN ESKAINTZAN.



Goi Eskola Politeknikoa | Askotariko ikastaroak eskaintzen dira: Zibersegurtasuna, Proiektuen kudeaketa, Industria antolakuntza eta kudeaketa, Ingenieritza mekanikoa eta fabrikazio prozesuak, Adimen artifiziala, Data analytics & Power BI, Elektronika eta energia, Diseinu berrikuntza, Eraldaketa ekologikoa eta deskarbonizazioa; eta Automatizazioa, robotika eta ikuspen artifiziala. Eta formatuak ere askotarikoak dira, norberaren beharrei egokitutakoak: online, semipresentzialak, guztiz presentzialak; ikastaro laburrak (egun batekoak), hainbat astetakoak, modularrak eta ibilbide bat egiteko aukerarekin, aditu tituluak, masterrak... Gainera, enpresaren beharretara egokitzen diren programak ere badira bai toki, iraupen, zein diseinuari dagokienez enpresei egokituta.

Enpresaren errealitatetik oso gertu dagoen esperientzia handiko irakasle taldeak ematen ditu ikastaroak; gainera, enpresetako aditu eta profesionalen hitzaldi eta saioak txertatzen dira, eta enpresetara bisitak. Are gehiago, hainbat ikastarotan proiektu praktikoa egiten da enpresan honen onurarako, ikastaroan ikasitakoa zuzenean enpresan aplikatu dadin.

Learning by doing, bereizgarri

Learning by doing metodologian oinarritutako abangoardiako prestakuntza eskaintzen da, ibilbide malguak eta unibertsitate akreditazioa eskaintzen dutenak, non prestakuntza ordu bakoitzak, aplikagarritasunaren bidez, enpresan eragina duen.

EU4DUAL

Jon Altuna, Donostiako enbaxadore berrietako bat

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREORDE AKADEMIKO JON ALTUNA AUKERATU DUTE DONOSTIAKO ENBAXADORE BESTE 26 PROFESIONALEKIN BATERA.



Jon Altuna enbaxadore izendapenean.

Errektoradutza | Enbaxadore programa Donostia Turismoak eta Kursoal Elkarguneak sustatzen dute, pertsona jakin horiek hirira biltzar eta ekitaldi profesionalak erakartzeko egin duten lanagatik.

Enbaxadore programaren bidez, hiriaren ardatz estrategikoei lerrotutako topaketak erakarri eta antolatzea bultzatzen duten profesionalen funtsezko rola azpimarratu nahi da. Haiei esker, hiria nazioartean posizionatzen delako, talentua, ezagutza eta inbertsioa erakartzen direlako eta Donostian eta lurraldean eragina duen inpaktua sortzen delako.

Mondragon Unibertsitateko errektoreorde akademikoa den Jon Altuna Iraolaren kasuan, antolatzaileek aintzat hartu dute, besteak beste, 2025ean Mondragon Unibertsitateak hirian European Dual Higher Education Conference (EU4DUAL) antolatu izana.

'Dive Longevity', atsedenean laguntzeko startup-a



Deskantsuan laguntzeko formula.

Enpresagintza Fakultatea | LEINN graduako ekintzaileek mendekotasunik gabeko lo sakona eta buru argitasuna optimizatzeko diseinatutako formula berritzailea aurkeztu dute.

Mondragon Unibertsitateko ekosistema ekintzailean, Dive Longevity sortu da, Bilbao Berrikuntza Faktoria (BBF) gunetik jaiotako proiektua, Brais Vinseirok eta Joaquín Sanzek sortutakoa. LEINNer gazte hauek gizartearen erronka handienetako bati erantzutea lortu dute: atsedenean faltari eta horrek epe luzeko osasunean duen eraginari.

Dive Longevity biohacking kontzientean oinarritutako proposamena da, eta ebidentzia zientifikoa duten osagaiak erabiltzen ditu —L-Teanina,

Magnesioa eta Glizina, besteak beste nerbio-sistema baretu eta melatoninarik gabe jarduteko, esnatzean geratzen den logura saihestuz.

Produktuaren aurkezpenean, Joaquín Sanzek Steve Jobs aipatu zuen LEINN graduako filosofiari erreferentzia eginez: ideiatik ekintzara jauzi egitea. Bestalde, Brais Vinseirok nabarmendu zuen bidea ez dela erraza izan, eta Dive proiektuak osasunarekin eta errendimendu altuarekin duten konpromisoa islatzen duela.

Proiektu honek Mondragon Unibertsitatearen balioak islatzen ditu: berrikuntza, autogestioa eta eragin sozial positiboa, LEINNeko ekintzaileak luzaroko osasunaren eta ongizatearen sektorean erreferente gisa kokatuz

50. urteurrena ospatzeko, ikasle ohien topaketa Eskoriatzan

AZKEN 50 URTETAN 10.000 IKASLE BAINO GEHIAGOK IKASI DUTE HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEK FAKULTATEAN. 50. URTEURRENEKO OSPAKIZUN EKITALDIEN ARTEAN, IKASLE OHIEN TOPAKETA EGINGODA MAIATZEAN.



10.000 ikaslek ikasi dute Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Maiatzaren 8an, ikasle ohien topaketa egingo du Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak 50. urteurreneko ospakizunen barruan. Bertaratzen direnek aukera izango dute ikaskide izandakoekin berriro tril egiteko eta campusen bilakaera ikusteko. Izan ere, ikasle ohiek Aretxabaletako eta Eskoriatzako campusak bisitatuko dituzte eta, ondoren, ikasle izandako guztiak Eskoriatzan elkartuko dira.

Ikasle ohiak protagonista

Aurten Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak mende erdia betetzen du. Hamarkada hauetan 10.000 pertsona baino gehiagok ikasi dute fakultatean.

Mende erdia beteko du 2025-2026 ikasturtean Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, 1976. urtean sortu baitzen Eskoriatzako Irakasle Eskola. 50 urteko bidea eginda, gaur egun bost gradu, bost master eskaintzen ditu hezkuntzan, komunikazioan, kulturen eta kooperatibismoan, eta arlo horietan garatzen ditu ikerketa eta transferentziako proiektuak ere.

Euskal Herrian errotuta dago fakultatea, eta Bilbon, Eskoriatzan eta Aretxabaletan dauden campusetan kokatzen da gaur egun. Fakultatea erreferentea da hezkuntza berrikuntzan, kooperatibismoan, komunikazioan eta humanitateetan, eta fakultate haragoko ekosistema sozial zabal baten parte da: hezkuntza erakundeak, enpresak, erakunde publikoak, komunikabideak, gizarte mugimenduak... Arlo horien inguruko egitaraua ere osatu dute urteurrenean.



500 zuhaitz landatu ditugu ikasle, langile eta beste hainbat kooperatibaren mugikortasun jasangarriari esker!



Mugikortasun jasangarria sustatzeko ekimena.

Karbono aztarna murrizteko ekimen arrakastatsuak

ESKOLA POLITEKNIKOA APUSTU HANDIA EGITEN DABIL MUGIKORTASUN JASANGARRIA SUSTATU ETA ARRASATEKO CAMPUSAREN KARBONO AZTARNA MURRIZTEKO HELBURUAREKIN.

Goi Eskola Politeknikoa | Goi Eskolaren helburua da 2036ko karbono aztarnaren %100 deskorbanizatzea eta, beraz, inpaktu gehien eragiten duen mugikortasun jasangarrian fokoa jartzen dabil azken urteetan.

Ciclogreen deituriko aplikazio baten erabilera sustatu dute ikasle eta langileen artean; eta hori erabiltzen dutenek honako onurak jasotzen dituzte: oparibonoak MUGI txartelak kargatzeko, jatetxeetan bazkaltzeko, gasolineretarako; autoa partekatzen duten ikasleentzat Arrasateko campuseko parkinean doan aparkatzeko aukera; eta Trantsizio eta Ingurumen ministeritzak sustatuko Bono Zikloa aktibatuta (App-an bertan), autoa partekatuz egiten den km bakoitzeko 2 zentimo eskuratzen ditu gidari eta bidaiari bakoitzak. Urtean zehar pilotutako dirua ondoren oparibonoengatik trukatu ahaliko da.

Onura guzti hauetaz baliatuz, ikasturte honetan ia 450 ikasle eta langilek erabili dute Ciclogreen App Aplikazioa eta horri esker, ia 14.000 kg CO2 aurrezteak lortu da.

Azken erronkak

Aplikazioaren erabilera sustatzeko hainbat erronka ipini ditu martxan unibertsitateak urtean zehar: Goi Eskola Politeknikora bizikletaz etortzeko, autoa partekatzeko... Eta 2025 bukaera aldera Goi Eskola Politeknikoak, Fagor Taldeak, Danobat Group-ek eta Laboral Kutxak batera erronka amankomunipini zuten. Helburua zen hilabete batean denen artean 70.000 ziklo lortzea Ciclogreen App (garraio motaren arabera ziklo kopuru desberdina eskuratzen da, oinez, bizikletaz, patinete elektrikoan, autobusez, trenez, auto partekatuan, auto elektrikoan...). Helburua lortuz gero, 500 zuhaitz landatuko zituzten; eta hala izan da.

Goi Eskolaren helburua da 2036ko karbono aztarnaren %100 deskorbanizatzea eta, beraz, inpaktu gehien eragiten duen mugikortasun jasangarrian fokoa jartzen dabil azken urteetan.

Estudiantes de myGADE ganadoras del prestigioso Business Game bugaMAP

IRAIA URRUTIA, LIBE MILLET, DANIEL TAMÉS, ARAITZ BARRENA Y ELENE RUIZ DE EGUINO, ESTUDIANTES DEL GRADO EN ADMINISTRACIÓN Y DIRECCIÓN DE EMPRESAS (MYGADE), FUERON LAS GANADORAS DEL PRESTIGIOSO CERTAMEN EN MADRID.



Iraia Urrutia, Libe Millet, Daniel Tamés, Aritz Barrena y Elena Ruiz de Eguino.

Facultad de Empresariales | Tras superar una fase clasificatoria altamente competitiva celebrada entre octubre y diciembre de 2025, el equipo de myGADE se hizo con el primer premio en la final celebrada en la sede de la Fundación MAPFRE en Madrid.

El bugaMAP (business game MAPFRE) es un simulador de estrategia empresarial que requiere que el alumnado tome decisiones críticas para mejorar los resultados de una compañía de seguros. En la fase clasificatoria, los estudiantes gestionaron seguros de "No Vida", pero en la gran final de Madrid el desafío aumentó: debieron de enfrentarse a la simulación de bugaMAP VIDA.

El reto: gestionar una aseguradora en tiempo real

En la fase clasificatoria del certamen se realizaron 69 seminarios clasificatorios en los que participaron más de 1.500 estudiantes de distintos grados universitarios. Todos ellos superaron las pruebas

relacionadas con este simulador de seguros (bugaMap NO-VIDA) y tuvieron que gestionar las empresas asignadas para hacer crecer sus compañías y diferenciarse del resto del mercado simulado. En este campeonato han participado un total de 54 universidades españolas.

Los y las representantes de Mondragon Unibertsitatea tuvieron que: Analizar variables económicas complejas del mercado asegurador; Consensuar decisiones estratégicas bajo presión para maximizar el valor de la acción de su compañía; y Competir con grupos de diversas universidades de todo el listado del Ministerio de Ciencia, Innovación y Universidades.

La final se celebró en la sede de la Fundación MAPFRE en Madrid. Además del reconocimiento académico y el diploma acreditativo, el equipo ganador del campeonato recibió un premio conmemorativo para la universidad, y tarjetas regalo de Amazon por valor de 300€ para cada una de las cinco componentes del equipo y su profesor tutor.

El bugaMAP (business game MAPFRE) es un simulador de estrategia empresarial que requiere que el alumnado tome decisiones críticas para mejorar los resultados de una compañía de seguros.

Palmarés de la 1ª edición del Reto Lavazza

RETO LAVAZZA ES UN DESAFÍO QUE CONVIERTE EL CAFÉ EN UNA EXPERIENCIA SENSORIAL QUE UNE CREATIVIDAD, TÉCNICA Y SABOR EN CADA DETALLE.



Participantes del Reto Lavazza.

Basque Culinary Center - Facultad de Ciencias Gastronómicas

| A través de un acuerdo entre Lavazza y Basque Culinary Center, el alumnado de La Facultad de Ciencias Gastronómicas desarrolla propuestas innovadoras centradas en el café, elevando el producto a una experiencia más allá de la bebida tradicional e impulsando la cultura del café. El proyecto pone el foco en estudiantes que están iniciando su carrera gastronómica, dándoles herramientas para innovar con el café.

En esta primera edición del Reto Lavazza han participado estudiantes del 3er curso de Gastronomía y Artes Culinarias. De esta manera, se ha formulado un homenaje al talento joven y a su capacidad para transformar el café en historias y experiencias que transforman todos los sentidos.

Los equipos ganadores han sido los formados por Urmo Bellostas y Anne Miren Mateo ('Romper la taza'), Elia Merenciano y Laia Sala ('Paralelo 45') y Matthew Aristizabal y Huangfeng Cheng ('Reflejo del café'), 3 propuestas que han convertido este nuevo reto en un viaje sensorial, donde creatividad, técnica y sabor se entrelazan como aroma y espuma de café. Felicidades a estos tres grupos ganadores que pronto viajarán al Training Center de Lavazza en Turín (Italia) para obtener la certificación SCA Intermediate Barista Skills que ya les corresponde.

Y gracias a todo el alumnado participante, al jurado y a Lavazza por recordar que, como un buen espresso, la excelencia y la pasión requieren tiempo, precisión y dedicación.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

Mende erdi, gizartea eraldatzen

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAK 50 URTE BETE DITU. EGINDAKO BIDEA ETA AURREAN DITUEN ERRONKAK GAINBEGIRATZEKO PROFIL ETA BIZIPEN DESBERDINETAKO FAKULTATEKO HAINBAT KIDE BATU DITUGU: NAROA ANDRES, IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA GRADUKO IKASLEA; LETIZIA GARCIA, IRAKASLEA; JAVIER MARCOS, ERREKTORE KONTSEILUKO KIDEA; PILAR SAGASTA, IRAKASLE OHIA; ETA NAGORE IPIÑA, FAKULTATEKO DEKANOA.

Irakasle Eskola gisa Eskoriatzan eratu zenak bide itzela egin du, eta gaur egun Eskoriatzaz gain, Aretxabaletan eta Bilbon ere baditu egoitzak. Bidean, erronka ugari eta etengabeko bilakaera, tematutako profesionalen eskutik. “Mugarri handienetako bat irakasle eskola izatetik fakultatea bilakatzea izan zen, horretarako egitura sortu genuen; jarraian masterrak, doktoretzak... indarrean jarri genituen, eta ikerketan hasi ginen modu komunitarioan. Dena zegoen egiteko eta urte horiek tsunami bat izan ziren, oso intentsuak”, azaldu du 27 urtez fakultatean lan egin zuen Pilar Sagastak. Sagastak eta bere garaiko lankideak ohartu ziren transmisio hutsean oinarritutako metodologia ez zela egokiena, eta apustua egin zuten: horren gaineko prestakuntzan bustiz, aitzindariak izan ziren Estatuan. “Guk konfiantza handia genuen kolektiboan eta gure buruan; eta horri esker egin genuen beti aurrera”. Gaur egun Sagastari eta haren taldeari dozentzia eta ikerketa zereginetan lekukoa hartu dion Letizia Garcia bat dator hastapenetako

espiritu horrekin. “Badirudi aspaldidanik datorrigula erronkak oztopo baino aukera moduan bizitzeko lantaldearen jarrera hau. Uste dut hemen betidanik inkonformista hutsak izan garela eta, horregatik, egunero abentura bat da hemen lan egitea”, diosku Garziak.

Sagastaren bizipenekin bat egiten du Mondragon Taldeko Komunikazio arduradun eta fakultateko Errektore Kontseiluko kide Javier Marcosek fakultatea hala definitzea: “Identitate euskaldun eta kooperatiboa duen hezkuntzaren pedagogian aitzindari den fakultatea”. Marcosek fokoa jartzen du aitzindaritasun horretan, gogoratuz Mondragon proiektua hezkuntzatik abiatu zela eta etorkizuna ere horretan oinarritzeak berebiziko garrantzia duela. “Ikerketa begiradak eta hezkuntzak ahalegin handia egiten dute kooperatibismoa indartu eta biziberritzeko. LANKE Kooperatibismoaren Ikertegiari esker, besteak beste, bide horretan aurrera egin dugunaren sentsazioa daukat, baina lanean jarraitu behar dugu”.

Begirada profesionaletik harago, ezinbestekoa da fakultatearen arima diren ikasleen ikuspuntua jasotzea. Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasle Naroa Andres-ek azpimarratu duenez, “fakultate honetatik erakarri ninduten praktikotasunak, erakusteko moduak, talde-lan ereduak, praktiken derrigorotasunak eta arlo desberdinetako profesionalekin ikasteko aukerak. Horrek guztiak desberdintzen du Mondragon Unibertsitatea bestelako unibertsitateetatik”.

Ikasleen ahotsa eta partehartzea

Horretan zeresana dute Unibertsitateko eta kasu honetan fakultateko eragile guztiek; oinarriak jarri zituzten irakasle aitzindarietatik hasita, gaur egungo langile zein Errektore Kontseiluko kideetaraino, kolektiboak transmititzen duen gertutasuna berezia baita. “Nik sentitzen dut guk entzunak izateko aukera dugula, pentsatzen duguna esateko, ideia berriak emateko... eta, gainera, fakultateak espazioak egokitzen ditu ikasleok hausnartzeko, galderak egiteko...”, azpimarratu du Andresek. Marcosek uste du Unibertsitateak daukan gertutasun hori balioan jartzeko ezaugarria dela: “Gustura entzuten dut Naroa azaltzen Unibertsitatea oraindik ere KmO-koa dela igartzen duela, eta uste dut hori zaindu beharreko balioa dela”.

Garcia ere bat dator ikasleen partehartzearen balioaz eta aberastasun iturria dela dio: “Gazteei buruz izugarri hitz egiten da gizartean, baina uzten diegu haietaz hitz egiten? Guk saiakera egiten dugu haiekin egoteko, entzuteko



“Praktikotasuna, erakusteko modua, praktiken derrigorotasuna eta profesionalekin ikasteko aukera hemengo bereizgarriak dira”.


Naroa Andres
Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko ikaslea.




50 urte gizartea eraldatzen



Irakasle eskolatik, etorkizuneko fakultatera



Ikaslea arima eta partaide: gertuko unibertsitatea
Ikasleen esperientzia eta parte-hartzea.



Hezkuntza aitzindaria eta konpromiso kooperatiboa
Identitatea eta pedagogia berriak.



eta ispilu lana egiteko; izan ere, erronkak jartzen dizkiegu aurrean gure parametroak zalantzan jartzeko. Horrek irakasle zein ikasleei gatazka kognitibo ugari eragiten dizkigu eta galdera berriak sortzera eramaten gaitu. Hori oso garrantzitsua da”.

Bide beretsuan, Marcosek uste du ikasleak motibatu behar ditugula Unibertsitateko organoetan parte hartzeko, haien beharrak hobe ezagutzeko; eta Garciak uste du ondo legokeela gradu-tan LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiaren Kooperatibismoaren Ikerketaren formakuntza txertatzea. Bada, fakultateak dagoeneko badauka prozesu bat diseinatuta hori erraztuko duena. “Pro-

“**Mondragon hezkuntzatik abiatu zen eta etorkizuna ere horretan oinarritzeak berebiziko garrantzia dauka”.**

Javier Marcos
Errektore Kontseiluko kidea

zesuak identifikatuko du ikasle berriek eta gaur egungoek zer behar duten gure erakundeetan arlo informalean zein organoetan parte hartzeko, bazkide erabiltzaileak direlako”, laburbildu du fakultateko dekanok Nagore Ipiñak.

Gizartearen beharrei so

Hastapenetako iparra ez da aldatu, ezta arindu: gizartearen beharrei aurreratu eta horiei erantzuna eman, hezkuntzatik, ikerketatik... “Irakasle Eskola zenean ere gizartearekin lotura handia genuen. Garai hartan ibiltzen ginen beti eskoletara joaten zer behar zuten asmatzeko. Begirada hori beti egon da eta gerora gehiago hedatu da”, azaldu du



“**Hemengo lantaldea betidanik inkonformista hutsak izan gara eta, horregatik, egunero abentura bat da hemen lan egitea”.**

Letizia Garcia
Irakaslea

“**Gizartearekin lotura handia izan dugu beti, horren beharrei erantzuteko. Begirada hori beti egon da eta gerora gehiago hedatu da”.**

Pilar Sagasta
Irakasle ohia

Sagastak. Eman asko eta jaso ere bai. “Hemen ez da egon beldurrik, izan gara kolektibo bat beti prest egon garena. Trebatu gara asko, kolektiboak asko eman digu, baina jaso duguna izugarria izan da”. Garciak esker oneko hitzak ditu haiekiko: “Jende hau oso urrutira begira egon da gizartearen eraldaketa helburu. Diseinatu, landu eta eratu”. Askok eta asko izan dira erronkaketa lorpenak, ia zenbaezinak: metodologiaren sorkuntza, Bolognari aurreratu izana, Europako homologazioak, kulturartekotasuna, gradu eta master berriak sortzea, on line eskaintza... guztia gizartearen beharrei aurreratzeko.



“Gizartearen
premiak
asetzeko
balioak
indartu
behar
ditugu”

Nagore Ipiña

Humanitate eta
Hezkuntza Zientzien
Fakultateko dekanoa

Zeintzuk dira 50 urteotako mugarri garrantzitsuenak?

Duela 50 urte gizarte-premia bati erantzuteko sortu zen Irakasle Eskola: euskarazko irakasleen beharra zegoen. Hasieratik konpromiso sozial argia izan dugu, eta horrek ekarri zigun euskaratik eta euskarazko prestakuntzan erreferente bilakatzea. Orduetik, gure mugarri nagusia izan da gizarteari adi egotea. Premia berriak agertu direnean, arlo berriak sortu ditugu (Humanitate Digital Globalak eta Kultur eta Sormen Industrien graduak kasu), ezagutza osatu eta ikerketa indartu dugugure arlo guztietan. Horren adibide LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiak 25 urte bete izana eta nazioarteko esferatan ere lan egitea. Baina, batez ere, gure proiektu pedagogikoa etengabe berritu dugu, gure ikasleen garapen profesional eta pertsonalean benetako eragina duela ziurtatzeko.

Fakultatearen lerro garrantzitsua da herritarrei ateak zabaltzeko eta interakzio hori indartzea...

Fakultatea ez dugu espazio itxi gisa ulertzen. Elkargune ireki bat gara, gizartearekin etengabeko elkarrizketan dagoena. Eskoriatzako Dorleta eraikina, Aretxabaletako IdeiEnea edo online

eskaintza ez dira azpiegitura hutsak; bizitza osoko ikaskuntzaren aldeko apustuak dira. Gure estrategiaren ardatza da pertsonen bizitza osoan zehar ikaskuntza aukerakeskaintzea, formatu malguetan eta behar desberdinei erantzunez. Helburua da gizartearen eragitea, baina aldi berean gizarteak gudan eragitea ere bai.

Zeintzuk dira erronka nagusienak?

Gizartearen premiak asetzeko balioak indartzen jarraitzea. Batetik, ibilbide ez linealak sustatu behar ditugu. Pertsonen bizitzak ez dira linealak, eta gure eskaintzak ere ez luke izan behar. Malgutasuna eta elkarrizketan oinarritutako ikaskuntza esperientziak behar ditugu. Bestetik, komunitatea sakontzea da gure lehentasunetako bat. Fakultatea hazi da, eta horrek erronka berri bat dakar: nola mantendu eta indartu gure zentzu komunitarioa, parte-hartzea eta espazio seguruak bermatuz eta begirada kooperatiboa eta feminista indartuz. Eta, jakina, teknologia berrien eta adimen artifizialaren aurrean ere argi jokatu behar dugu: berrikuntza integratu, baina pertsonak erdigunean mantenduz. Tresnak baliatu, baina helburua pertsonen garapen integrala izaten jarraituz.

EN

"We need to reinforce values to meet the needs of society"

Nagore Ipiña - Deacon of the School of Humanities and Education Sciences of Mondragon Unibertsitatea

What are the most important milestones of the last 50 years?

The Teacher Training School was created 50 years ago to meet a societal need. Basque speaking teachers were needed. From the start we've had a clear social commitment that has led us to become leaders in the Basque language and teaching in Basque. Since then, our major milestone has been being attentive to society. When new needs have arisen we have created new areas, like Digital Global Humanities and degrees in Creative and Cultural Industries. And we've filled in knowledge gaps and strengthened research in all our areas. An example of that is LANKI's

25 years of work, and having also fulfilled expectations and worked in international spheres. But, above all, we've constantly renewed our pedagogical project to make sure it really influences the personal and professional development of our students.

One important line of the school is opening our doors to the public and reinforcing that interaction...

We don't see the school as a closed space. We're an open meeting point in constant dialogue with society. The Dorleta de Eskoriatza building, IdeiEnea in Aretxabaleta, or the online materials

aren't merely infrastructure, they're intended to be used for life-long learning. Our strategy is centred on providing learning opportunities over the course of people's lives in flexible formats and responding to different needs. The goal is to have an impact on society, but at the same time have society influence us.

What are the primary challenges?

To keep strengthening the values of meeting the needs of society. On one hand, we need to promote non-linear itineraries. People's lives aren't linear, and the programmes we offer shouldn't be either. We need flexibility

and learning experiences based on dialogue. On the other hand, being deeply involved in the community is one of our priorities. The school has grown, which brings about a new challenge, which is how to maintain and strengthen our sense of community, ensuring participation and safe spaces and reinforcing the cooperative and feminist point of view. And, of course, we also have to be clear about new technologies and artificial intelligence, integrating innovation while keeping people at the centre. We have to use the tools, while keeping the goal of whole-person development.

SOKA EZ DA ETEN

Iñigo Ramirez de Okariz Telleria.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko langile ohia (1986-2021), eta Mondragon Unibertsitateko Aldezlea, 2024-2025 ikasturtetik.



Soldaduska bukatu eta ezkondu berri, 1986an iritsi nintzen hamar urte (1976) betetzen zituen Eskoriatzako Irakasle Eskolara. Bertan egin nuen topo urte askoan lankide izango nituenekin, eta ia ikasle berri bat banintza lez hasi nintzen urratsak egiten, bizitza akademiko osoan irauten duen hezitzaile izaten ikasten. Izan ere, hor ikasi nuen, 2021ean jubilatatu nintzen arte, zer adierazten duen bizitza osoan ikasten konpetentziak, etengabeko formakuntza profesionalari eta pertsonalari ekin behar izan bainion.

Belaunaldi askoren hezitzaile izateko aukera izan dut hainbat urtetan, beti argi izanda curriculumaren ardatza: euskarari eta euskal kulturaren oinarritutako transmisioari arreta jartzea. Ardatz horretatik sortu ziren gainontzeko arloak eta proiektuak Irakasle Eskolan ere, soziolinguistikatik hasi eta irakasleak birziklatzeko proiektuetaraino.

Ez nintzen, ordea, irakasle eskola arrunt batera iritsi, baizik eta egitura kooperatiboan antolatzen zen batera. Hala, ikasi behar izan nuen zer den kooperatiba bat, nola eratzen eta funtzionatzen duen, zer balio edo sinesmenean oinarritzen den... Halere, egiari zor, ez zitzaizkidan arrotzak egin, eta neurekin egin nituen berehala.

Horrekin guztiarekin, eta ikaskuntzan, transferentzian zein ikerketan ziharduten beste kooperatiben sinergiak aprobetxatuta, Mondragon Unibertsitatea sortu genuen 1997an; aldi berean, iparorratz bihurtu den Mendeberrri hezkuntza eredu diseinatzen ere hasi ginen. Eginahala horrek hainbat aldaketa ekarri zituen gurerara: batetik, HUHEZI Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea sortu genuen, San Viator eraikinean kokatuta; eta, bestetik, Mendeberrri ikasgeletan txertatzen hasi ginen.

Berrikuntzak bata bestearen ondotik zetozen garai hartan. Hezkuntza genuen eguneroko jardun

zentralizat, baina beste bi lerro garatzeko gai ere izan ginen: Komunikazioa (Ikus-entzunezko Komunikazioa) eta Kooperatibismoa (LANKI Kooperatibismoaren Ikertegia). Are, bide batez, Aretxabaletako campus berria inauguratu genuen (2013).

Harro ospatu genuen 40. urteurrena 2016an, 'Euskal gizartean eragiten' leloarekin. Are gehia-

*Badakit garaian garaiko
erronkekin bat leloarekin
garatu den Erakundea izan dela
gurea. Horrenbestez, nahiz eta
hezitzaileak beste belaunaldi
batekoak izan, ziur nago gai
izango direla aurrez aurre
dituzten ikasleei eta gizarteko
erronkei aurre egiteko;*

go, gure oroimen kolektiboaren mesederako izango zelakoan, gai izan ginen eragile askoren bizipenak jasotzeko eta sozializatzeko liburu batean.

Geroago, neurri batean nostalgiaz, baina, bestetik, pozarren, Irakasle Eskolaren antzinako eraikuntza berritzen ikusi genuen 2020an; era horretan, Boloniako prozesuaren ildotik graduko ikasketa berriek eskatzen zizkiguten espazio berriak atondu genituen.


Berrogeita hamar urte betetzeak (1976-2026) badakar bere baitan nigan harrotasuna, proiektu honen parte izan naizelako, baina ezin izango dut

disimulatu, kezka ere badaukadalako; izan ere, garai berriek bestelako beharrianak dakartzate.

Dena den, badakit 'Garaian garaiko erronkekin bat' leloarekin garatu den Erakundea izan dela gurea. Horrenbestez, nahiz eta hezitzaileak beste belaunaldi batekoak izan, ziur nago gai izango direla aurrez aurre dituzten ikasleei eta gizarteko erronkei aurre egiteko; eta, aldi berean, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak dituen balio kooperatiboak transmititzen saiatuko direla, helburu izanik polibalenteak, malguak, irekiak eta errealitatea ezagutzen eta irakurtzen dakiten profesionalak formatzea. Hitz batean, praktikan, garai batean bezala, ikaslearen heziketa integrala den markoari behin eta berriz helduz.

Eta iritsi gara 2026ra, baina ez dakigu nora eramango gaituzten geroz eta azkarragoak diren aldaketek; noraeza nabaria da bazter guztietan. Aldatu egin gara hezitzaileok ere eta, zer esanik ez, gurera datozen ikasleak. Ez gara kikilduko, hala ere. Horretan oinarritzen da 50 urteko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen esperientzia edo eskarmentua, sortu ginen urte beretik jakin izan baitugu testuinguru soziopolitiko eta kultural gorabeheratsuei aurre egiten.

Neuk, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatetik jubilatuta, baina ez Mondragon Unibertsitate-tik, beste itsasargi batez jarraitzen dut nire izaera profesionala eta pertsonala markatu duen Erakundea. Badakigu, nahiz eta agian geroz eta gutxiago egin, beti egin beharreko ariketa bat dela atzera begiratzea. Diotenez, atzeak diosku nola jokatu etorkizunean, eta uste dut ariketa interesgarria dela: iraganaz jabetu eta, zergatik ez, bertatik ikasi, datorrenari aurre egiteko baliagarria izango delakoan. Baina, aldi berean, gure identitatea geroz eta gehiago ezagutzeko, sakontzeko eta maitatzeko ere balioko digu.



“Barcelona Circular es un nuevo nodo dentro de una red de laboratorios de emprendimiento que conecta talento, empresa y territorio desde la economía circular.”

Lander Beloki

Decano de la Facultad de Empresariales de Mondragon Unibertsitatea.

BARCELONA CIRCULAR ABRE SUS PUERTAS COMO NUEVO ESPACIO DE ACTIVIDAD EMPRENDEDORA VINCULADO A LA ECONOMÍA CIRCULAR Y LA TRANSFORMACIÓN INDUSTRIAL. PERO ESTE PROYECTO VA MÁS ALLÁ DE UN NUEVO HUB: FORMA PARTE DE UNA RED ESTATAL DE LABORATORIOS DE EMPRENDIMIENTO IMPULSADOS POR LA FACULTAD DE EMPRESARIALES DE MONDRAGON UNIBERTSITATEA A TRAVÉS DEL ECOSISTEMA MONDRAGON TEAM ACADEMY (MTA). HABLAMOS CON LANDER BELOKI SOBRE EL SENTIDO ESTRATÉGICO DE ESTA RED Y EL PAPEL DE BARCELONA COMO NUEVO NODO DE ESTE ECOSISTEMA CONECTADO.

¿Qué supone para la Facultad de Empresariales de Mondragon Unibertsitatea la puesta en marcha de Barcelona Circular? Supone la activación de un nuevo nodo dentro de un modelo que llevamos años desarrollando: una red de laboratorios de emprendimiento conectados al territorio, a las empresas y a los grandes retos económicos y sociales.

Barcelona Circular no es solo un espacio físico, es parte de un ecosistema más amplio impulsado desde Mondragon Team Academy (MTA), donde el aprendizaje, el emprendimiento y la



innovación suceden en contacto directo con la realidad empresarial. En este caso, con un foco muy claro en la economía circular y la transformación industrial.

Barcelona Circular se presenta como un polo especializado en economía circular. ¿Por qué este foco es estratégico? Porque la economía circular ya no es una tendencia, es una condición para la competitividad futura de la industria y de las pymes. Desde la Facultad entendemos que los laboratorios de emprendimiento deben estar alineados con los grandes retos del momento.

En otros territorios trabajamos mucho la transformación empresarial, el emprendimiento juvenil o la innovación organizativa. En Barcelona, el eje tractor es la economía circular aplicada a la industria real.

Eso convierte al BAC en un espacio de experimentación muy relevante tanto para empresas como para las personas emprendedoras en equipo que desarrollan aquí sus proyectos.

¿Cómo encaja Barcelona Circular dentro del ecosistema Mondragon Team Academy? Encaja de forma natural. MTA cuenta hoy con una red de laboratorios en Irun, Oñati, Bilbao, Madrid, Barcelona, Valencia y Málaga a nivel estatal. Todos comparten una misma lógica: aprendizaje basado en proyectos reales, conexión con empresas y fuerte arraigo territorial.

Lo que hace especial a Barcelona es el foco temático, pero la lógica de funcionamiento es la misma: jóvenes desarrollando empresas reales, en conexión con retos del entorno y con otros laboratorios del ecosistema.

Esto permite que el talento, los proyectos y el conocimiento circulen entre territorios.

¿Qué papel juegan aquí las y los emprendedores en equipo, especialmente los vinculados al grado LEINN? Un papel central. Más de 170 emprendedores y emprendedoras en equipo desarrollan sus proyectos en Barcelona Circular. No vienen a “aprender sobre emprendimiento”, vienen a emprender de verdad.

Lo hacen además en conexión con empresas, con pymes industriales y con retos vinculados a la circularidad. Y lo hacen sabiendo que forman parte de una red estatal donde pueden colaborar con equipos de Bilbao, Madrid o Valencia.

Esa dimensión de red es lo que convierte la experiencia en algo único.

“BAC en un espacio de experimentación muy relevante tanto para empresas como personas emprendedoras en equipo que desarrollan aquí sus proyectos”.

El BAC nace desde una colaboración público-privada con el Ayuntamiento de Barcelona y Barcelona Activa. ¿Por qué este modelo es tan importante? Porque este tipo de espacio solo tiene sentido si combina visión de ciudad, tejido empresarial y modelo educativo. La colaboración con Barcelona Activa permite que Barcelona Circular esté totalmente conectado con la estrategia económica del territorio.

Este modelo encaja perfectamente con el ADN de Mondragon: cooperación, compromiso con el entorno y construcción a largo plazo.

Es el mismo enfoque que ya hemos desarrollado en proyectos como Bilbao

Berrikuntza Faktoria o Bilbao AS Fabrik.

¿Qué diferencia a Barcelona Circular de otros hubs de innovación que existen en la ciudad? Que no es un hub al uso. No es un espacio de coworking ni un centro de eventos. Es un laboratorio vivo donde conviven emprendimiento real, innovación empresarial, formación y comunidad.

Aquí se crean empresas, se prototipan soluciones con pymes, se desarrollan programas de innovación y se involucra a la ciudadanía. Todo sucede a la vez y de manera integrada.

También se habla de apertura a la ciudadanía. ¿Por qué era relevante esta dimensión? Porque la economía circular no puede quedarse en el ámbito empresarial. Necesita ser comprendida y vivida por la comunidad.

Barcelona Circular quiere ser un espacio abierto, donde se pueda experimentar, aprender y participar. Esto refuerza nuestra manera de entender la universidad como agente activo de transformación social.

¿Qué impacto espera que tenga Barcelona Circular en los próximos años? Esperamos que se convierta en un referente en economía circular aplicada a la industria y a las pymes, pero sobre todo que refuerce esta red de laboratorios de emprendimiento que estamos construyendo desde la Facultad.

Barcelona no es un proyecto aislado, es una pieza clave dentro de un ecosistema que conecta talento joven, empresa y territorio en distintos puntos del Estado.

“Más de 170 emprendedores y emprendedoras en equipo desarrollan sus proyectos en Barcelona Circular. No vienen a 'aprender sobre emprendimiento', vienen a emprender de verdad”.



“Barcelona no es un proyecto aislado, es una pieza clave dentro de un ecosistema que conecta talento joven, empresa y territorio en distintos puntos del Estado”.

¿Qué dice este proyecto sobre la forma en la que la Facultad de Empresariales entiende hoy la universidad? Dice que la universidad ya no puede limitarse al aula. Debe generar ecosistemas donde aprendizaje, empresa, innovación y territorio estén conectados.

Barcelona Circular es un ejemplo muy claro de esta manera de entender la universidad: como plataforma de emprendimiento, transformación industrial y colaboración.

“Barcelona Circular es un ejemplo muy claro de esta manera de entender la universidad”.

Aitortza hunkigarria Pedro Subijanari

ABENDU ERDIAN, BASQUE CULINARY CENTERREK ETA MANTALAK PEDRO SUBIJANAREN OMENEZKO AFARI-TOPAKETA EGIN ZUTEN GURE GASTRONOMIAKO SUKALDARI GARRANTZITSUENETARIKO BATZUK BILDU ZITUEN TOPAKETA BEREZIAN. PUNTAKO GASTRONOMIA, 50 URTEKO IBILBIDEARI AITORTZA ETA UNE HUNKIGARRIAK IZAN ZIREN TOPAKETAN.



Omenaldiaren une kuttunetako bat.

Basque Culinary Center - Facultad de Ciencias Gastronómicas | Topaketak Pedro Subijanaren sentsibilitatea, begirada eta legatua balioan jarri zituen. Izan ere, Subijanak mende erdia baino gehiago egin du Akelarren, eta estilo paregabea definitu du, euskal gastronomiaren bilakaera eta nazioarteko proiektzioa modu erabakigarrian zizelkatu baititu. Sormenez, berrikuntzaz eta maisutasunez betetako 50 urte hauei omenaldia egin zitzairen, eta Euskal Sukaldaritzaren Berriak partekatutako bide honetan izan duen funtsezko zeregina ere aitortu zen.

Afariaren lanketa kolektiboa
Afaria Mahai Kolektiboko sukaldari batzuek prestatu zuten -Aitor Arregi (Elkano), Igor Arregi eta Lidia Olaizola (Kaia), Pili Manterola (Iribar), Dani López (Kokotxa), Roberto Ruiz (Hika), Juan Carlos Caro (Zelai Txiki), Jon Ayala eta Arantxa Ayala (Laia), Enrique Fleischmann (Txoko), Íñigo Lavado eta

María Lavado (Itzuli), Gorka Txapartegi (Alameda), Javi Rivero eta Gorka Rico (Ama), eta Aizpea Oihaneder (El señor de los Bosques), Basque Culinary Centerreko lantalde eta ikasleekin batera.

Euskal sukaldaritzaren bilakaera

Nortasunean barrena ibili diren elaborazioak bildu zituen. Lau euskal saltsa enblematikoei eskainitako gune bat ere izan zuen -pilpilarena, bizkaitarrarena, saltsa berdearena eta txibi-tintarena-, lurraldeko gastronomiaren oinarriak omentzeko.

Ekitaldian emozio handiko uneak izan ziren; esaterako, Donostiako orfeoia emanaldia eta chefaren omenezko auresku baten interpretazioa. Horrez gain, gastronomia arloko hainbat kidek Pedro Subijanaren ibilbide profesionala ez ezik, haren pertsona, eskuzabaltasuna eta sukaldari belaunaldi batzuen erreferente eta maisu gisa izan duen rola ere aitortu nahi izan zuten.

Topaketak Pedro Subijanaren sentsibilitatea, begirada eta legatua balioan jarri zituen. Izan ere, Subijanak mende erdia baino gehiago egin du Akelarren eta estilo paregabea definitu du.

Impulso a la formación avanzada en inteligencia artificial y ciencia de datos



Firma del convenio entre la Facultad de Empresariales y SAS.

Facultad de Empresariales | La Facultad de Empresariales y SAS se unen para impulsar la formación avanzada en inteligencia artificial y ciencia de datos, incorporando el software SAS® Viya® for Learners en el Grado en Business Data Analytics, para facilitar al alumnado las certificaciones internacionales y su preparación en tecnologías líderes.

Uso académico del software

Gracias a este convenio, el alumnado y profesorado del grado podrán acceder al uso académico del software SAS® Viya® for Learners, una potente plataforma online que permite el desarrollo de proyectos reales en ámbitos como la analítica predictiva, el machine learning o la modelización estadística.

El acuerdo contempla la cesión de licencias y material didáctico por parte de SAS, que serán integrados en las asignaturas del grado para reforzar las competencias técnicas en análisis y gestión de datos. De esta forma, el alumnado podrá adquirir conocimientos directamente aplicables al entorno profesional, mediante la utilización de herramientas ampliamente demandadas por las empresas.

Certificaciones oficiales ventajosas

En esta línea, SAS, como centro certificado de Pearson Vue, una certificación oficial que valida los conocimientos y habilidades tecnológicas, académicas o profesionales, facilitará que el alumnado de BDATA pueda presentarse a distintas certificaciones oficiales con condiciones ventajosas, entre ellas: SAS Certified Specialist: Base Programming Using SAS 9.4; SAS Certified Associate: Programming Fundamentals Using SAS Viya; SAS Certified Specialist: Machine Learning Using SAS Viya; y SAS Certified Statistical Business Analyst Regression and Modeling.

Tekno-ekintzaile gazteen bizitzarako aukera hobeak lantzen

GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK GAZTE TEKNO-EKINTZAILEEN ERREALITATE EKONOMIKOAREN AHULEZIAK HOBETZEKO ASMOZ, TEKNOLOGIATIK ABIATUZ EKITERA ANIMATZEN DIREN GAZTEENTZAT GIPUZKOA LURRALDE ERAKARGARRIA BILAKATU NAHI DU.



Gipuzkoako lurralde erakargarriagoa bilatzeko lantaldea.

Goi Eskola Politeknikoak | 'Gipuzkoa Egan Bizi Ekintzaile Gazteen Bizitzarako Aukerak' proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz Gipuzkoa Taldeko proiektu programa deialdiaren bidez finantzatu da. 2024-2025 epealdian egin du Goi Eskola Politeknikoak, eta 16.334 euroko aurrekontua izan du.

Gipuzkoa Egan Bizzi proiektu berritzaile bat da, lurraldearen balio proposamena birdefinitzen duena gazteen ekintzailetza bultzatzeko, arreta berezia eskainiz ekintzailetza teknologikoari eta STEAM profilak dituzten gazteen parte hartzeari. Gipuzkoak ekintzailetza partidetza oso txikia du eremu horretan.

142 ekintzaile gazte aztertuta

Proiektuak 142 ekintzaile gazteren, 24 ekosistematako eragileen iritzian eta Europako enazterketan oinarritu da, eta honako ondorioak jaso ditu: Prekarietate nabarmena ekintzailetzaren hastapenetan (4 eta 6 urte bitartez egiten duten lanagatik soldatarik edo beren formakuntzari dagokion merkatuko soldatarik jaso gabe; bazkide eta promotore bezala hartzen dituzten arriskuengatik gutxitan eta, dena dela, ia 10 urte pasa arte etekinik jaso gabe); Emakumeek zuzendutako proiektu teknologikoen eta STEAMen presentzia oso txikia dela egiaztatu dute eta portaera ekonomiko babesleagoa dutela; beren presentzia asko murrizten dela amatasun adinetan eta kontziliaziorako, etxebizitza eskuratzeko eta laguntza sareetarako sarbidea

izateko zailtasun nabarmenak daudela, ez bait dira inongo diru sarrerarik ez badute ere, beharrezko dauden pertsonak bezala ikusten. Zama hau senitartekoek daramate askotan.

Egan Bizzi proiektua lantzerakoan Lurraldearen Balio Proposamen Berria diseinatu dute, honako balio nagusietan oinarrituta: berdintasuna, ongizatea, teknologia eta ahalegina aitor-tzea, aberastasuna eta lanpostuak sortuz gu zaintzeko ahaleginak egiten duten horiek zainduz. Diseinatutako ikuspegi horrek enplegua, zaintzak, finantzazioa, etxebizitza eta prestakuntza teknologikoa integratzen ditu besteak beste, guzti hori bizitza ekintzaileko proiektuaren zutabe gisa.

Aurrerapen nabarmenak

Landutako proiektuak aurrerapen nabarmenak ekarri ditu: hiru urtera arte luzatuko dira soldata bekak, elkartasuneko inbertsioetarako mekanismo berriak ezarriko dira eta ekosistemako eragileen arteko koordinazio handiagoa bultzatuko da. Gainera, berdintasun ikuspegia finkatzea lortu du, eta agerian uzten ditu finantzazioa, lidergo teknologikoa eta zaintza kargak bermatzeko faltan dauden hutsuneak.

Lanketa horren bidez, Gipuzkoak aurrera egingo du berdintasunean sinisten eta ekiten duen lurralde eredu baterantz, STEAM bokoak sustatuko ditu eta gazte ekintzailetza jasangarria, teknologikoa eta pertsonak ardatz dituen sustatuko ditu.

Euskal kulturaren erronken inguruan hausnartzeko jardunaldi arrakastatsua

'EUSKAL KULTURA GAUR ETA BIHAR' JARDUNALDIAREN 4. EDIZIOA EGIN DUTE ARETXABALETAKO CAMPUSEAN; BERTAN, EUSKAL KULTURAREN ETA KULTUR ETA SORMEN INDUSTRIEN EGOERAREN ETA SEKTOREAREN ERRONKEN INGURUAN JARDUN DUTE.



Mahainguruetako baten irudia.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Otsailaren 25ean eta 26an, 'Euskal kultura gaur eta bihar' jardunaldia egin zuten Aretxabaletako campuseko IdeiEnea gunean. Bilkuraren helburua izan zen hausnartzea euskal kulturaren egoeraren eta erronken inguruan. Bi multzotan banandu zituzten jardunaldiko gaiak: lehen egunean, eztabaidagai izan zuten hezkuntzan euskal kulturaren egoera; bigarren egunean, berriz, sakondu zuten Kultur eta Sormen Industrien egoera eta erronketan.

Ikasketetan, ikerketan zein transferentzian Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko gai ardatzetako bat da kultura; eskaintza akademikoan ere leku berezia du euskal kulturak. Bederatzi ikasturtez egin zen Euskal Kulturagintzaren Transmisioan (EKT) Aditu diploma aitzindaria, eta handik sortu zen dagoneko hirugarrenez abiarazi den Euskal Kulturaren Eragiletzan Unibertsitate Masterra. Euskal kulturaren galdera eta beharrezko konkretuei erantzunez, arlo desberdinetan euskal kulturaren eragileak hezitzea da masterraren helburua. Kultur eta Sormen Industrietan aritzeko propio prestatutako profesionalak prestatzeko Kultur eta Sormen Industriak gradua ere abian jarri du fakultateak 2025-2026 ikasturtean.

Kultura, fakultatearen 50. urteurreneko otsaileko egitarauaren ardatza

Aurten 50. urteurrena ospatzen dabil Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, eta urte osoko egitaraua antolatu du ospatzeko, ikasketetan eta ikerketan lantzen diren arloetan banatuta: kultura izan zen otsaileko gai nagusia.

LEINNeko 11 ordezkari Forbes 30 Under 30 zerrendan

LEINN KOMUNITATEAK MUGARRI BERRI BAT LORTU DU: APURVA SAN JUAN, LUPEN SORTZAILEA, FORBES ALDIZKARIAK NABARMENTZEN DITUEN TALENTU GAZTEEN ZERRENDA HISTORIKOAN SARTU DA. HORRI ESKER, DAGOENEO 11 LEINNERREK PARTE HARTZEN DUTE ZERRENDA HONETAN.



Apurva San Juan, LUPen sortzailea.

Enpresagintza Fakultatea | Ekintzailetza eta talde-lidergoaren ekosisteman, Enpresagintzako ikasle eta graduatuen ibilbidea da arrakastaren adierazlerik onena. Urtez urte gure komunitateko izenak ekonomia zirkularra, bioteknologia edo gizarte berrikuntza bezalako sektore anitzetan nabarmentzen direla ikusteak, eredu hezitzaile disruptibo baten aldeko konpromisoa berresten du.

Aurten, gainera, harrotasuna bikotza da. Dagoeneko 11 LEINNe dira Forbes 30 Under 30 zerrenda prestigiosuan parte hartu dutenak, Enpresagintzaren posizioa talentu gaztearen harrobi indartsuenetako bat gisa finkatuz.

Apurva San Juan eta LUP

Hala, topaketan izan ziren EMA - Bizkaiko Foru Enplegu eta Ekintzailetza Agentziaren eta Sarekin-en hitzaldiak; Elegein Euskara Zerbitzuko Roberto Gómez Ledesma, Esther Ogunleye eta Jon Ortega Uzquiagak parte hartu zuten mahai ingurua; kafe-networking saioa, parte-hartzaileek esperientziak trukatu eta harreman berriak egiteko aukera izan zezaten; eta 'Gazteen Ahotsak: Kezkak, beldurrak eta iritziak' talde dinamika,

parte hartzaileek ekintzailetzaren bidean dituzten ikuspegiak eta erronkak partekatu zituzten.

Ekitaldia 15:00etatik 19:00etara egin zen, eta ekintzailetzan interesa zuten hainbat gazte bildu zituen. Parte-hartzaileek horrelako ekimenek aukera berriak sortzeko eta Bizkaiko ekintzailetza ekosistema indartzeko duten garrantzia azpimarratu zuten.

Era berean, antolatzaileek oso positibotzat jo zuten harrera eta partehartzea, eta bertaratutakoen grina eta proaktibotasuna nabarmendu zituzten.

Talentu eta xede historikoa

Hauek dira Forbes 30 Under 30 zerrendan bereizi diren kideak: Apurva San Juan (LUP) - 2024/25 Errekonozimendua; Marta Maneja eta Hernán Hernández Olaya (Gloop); Ane Fernández de Arbina Urbina (Test4Safe); Iñigo Monreal Legarda eta Maria Jara Perea (Smalllops); Enrique Cat (Nostoc Biotech); Gala Freixa (Sheedo); Eider Etxebarria (Bizipoz); June Arrieta (ZOCCO HANDMADE); eta Julen Rodriguez (Gravity Wave).

Adimen Artifizialaren erronkak eta aukerak goi mailako hezkuntzako erakundeetan, aztergai

'ETIKOA ETA FIDAGARRIA DEN ADIMEN ARTIFIZIALA JOMUGAN: ERRONKAK ETA AUKERAK GOI MAILAKO HEZKUNTZA ERAKUNDEETAN' JARDUNALDIA EGIN DUTE BILBAO AS FABRIKEN.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Otsailaren 11n, *Etikoa eta fidagarria den Adimen Artifiziala jomugan: erronkak eta aukerak goi-mailako hezkuntza erakundeetan* jardunaldia egin zuten Bilbao AS Fabriken. Ekimen honen helburua izan zen, gaur egungo errealitateari aurreratzen nahian, sortzea elkargune bat jorratzeko nola txertatu behar duten unibertsitateek Adimen Artifiziala modu etikoan eta arduratsuan.

Nazioarteko ikuspegia dauka Bilbao AS Fabriken egin zen jardunaldia, eta Europako Batzordeak *Capacity Building in Higher Education* programaren bidez abian jarritako *Integrity-AI* proiektuaren baitan kokatzen da ekimen hau. Proiektu horren xedea da

Adimen Artifiziala bete-betean bizi dugun garai honetan, integritate akademikoaren oinarriak sendotu eta horren aldeko kultura sustatzea. Horretarako, erreferentzia markoak, tresnak eta erakundeek Adimen Artifiziala modu etikoan eta pedagogikoan txertatzeko jarraibideak eskaini nahi zaizkie.

Jardunaldi hau kokatzen da Europako Batzordeak sortutako Capacity Building in Higher Education programaren barruan

AI modu egoki eta arduratsuan txertatu

Jardunaldiak jorratu zituen, askotariko adituen hainbat panel, hitzaldi eta elkarrizketa interesgarrien bitartez, nazioarteko ikuspegia eta erakundeen egoera eta gako etikoak, besteak beste; betiere, Adimen Artifiziala goi mailako hezkuntzan modu egokian eta arduratsuan txertatzeko helburuarekin.



Bilbao AS Fabriken egin zuten nazioarteko jardunaldia.

Ane Diaz de Tuesta ikasle ohia, Chromiumeko kolaboratzaileen zerrendan

GOI ESKOLA POLITEKNIKOKO IKASLE OHI ANE DIAZ DE TUESTA ARRASATEARRA DAGOENEN KROMIUMEKO KOLABORATZAILEEN ZERRENDAN DAGO. HOBEKUNTZA BAT IDENTIFIKATU ETA ZUZENDU DU CHROMIUMEKO KODE BASEAN. CHROMIUM DA GOOGLE CHROME, MICROSOFT EDGE ETA BESTE NABIGATZAILEEN MOTORRA, KODE IREKIAN DAGOENA.



Ane Diaz de Tuesta ingeniari informatikoa.

Escuela Politécnica Superior | Chromiumeko ezaugarri nagusienetako bat da, proiektu irekia bada ere, egin daitezkeen aldaketak irizpide zorrotzak pasatu behar dituztela, aplikatutako aldaketek eragin handia sortu dezaketelako. Horregatik, aldaketak egiteko filtro eta prozesu luzeak gaituz behar dira. Zerrenda horretan gaur egun mundu osoko 1.800 pertsona daude soilik. Hala, baliteke Diaz de Tuesta zerrendako lehen euskalduna izatea; eta, gainera, zerrenda horretan emakumeen presentzia oraindik baxua izanik, are eta garrantzitsuagoa da arrasatearrak egin duen ekarpena.

Datadog-en lanean

Ane Diaz de Tuesta arrasatearrak Frantzia darama bizitzen eta lanean hainbat urte, 2010ean Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan Informatika Injeneriartzako diploma lortu zuenetik. Sogeti enpresan aritu zen lanean lau urtez. Ondoren Lectra enpresan beste lau urtez aritu zen I+G departamentuan, frontend ingeniari gisa web aplikazioen alde bisuala garatzen. Handik, erronka teknikoagoen bila, Bordele erdialdeko startup txiki batera jo zuen, Frontend ardura-dun gisa. Eta, gerora, observability egiteko Datadog plataformara egin zuen jauzia, non

enpresei beren azpiegitura, aplikazio eta zerbitzu digitalen egoera ulertzen eta kontrolatzen laguntzen dieten.

Bederatzi hilabeteko maratonia

Bezero batentzat funtzionalitate batean lanean ari zela, Chromium akats bat detektatu zuen. Chromium asistentzia teknikoari hainbat ebidentzia erakutsita, Diaz de Tuestari zuzentzeko aukera eskaini zioten eta hala egin zuen. "Zailena proiektuaren tamaina eta konplexutasuna izan zen: milioika lerro kode, estandar zorrotzak eta berrikuspen prozesu oso esijentea". Baina ausartu zen: "lehenik arazoa ondo ulertu, gero konponbidea proposatu eta kodea idatzi hobekuntzak eginez. Iterazio prozesu luzea izan zen; bederatzi hilabete baino gehiagoko maratonia".

Emaitza begi bistan dago, eta poztasuna handia izan da egile arrasatearrentzat. "Erronka moduan hartu nuen, bai; baina batez ere ikasteko aukera paregabea izan zen, mundu mailako proiektu batean ekarpena egiteko eta estandar tekniko altuenekin lan egiteko aukera gisa. Prozesua nekagarria eta gogorra izan da une askotan, baina aldi berean oso aberasgarria eta harro sentiarazi ninduen esperientzia bat".

Publicado un libro pionero sobre la fermentación

DESPUÉS DE DOS AÑOS DE TRABAJO INTERDISCIPLINARIO, EL CONOCIMIENTO, LA EXPERIMENTACIÓN Y LA INTUICIÓN DE BASQUE CULINARY CENTER SE TRANSFORMAN EN UN LIBRO QUE ABRE UN NUEVO CAPÍTULO EN LA COMPRESIÓN DEL SABOR A TRAVÉS DE LA FERMENTACIÓN. YA ESTÁ A LA VENTA A TRAVÉS DE PLANETA GASTRO.



Completo libro sobre la fermentación.

Basque Culinary Center - Facultad de Ciencias Gastronómicas

'Fermentos, la gastronomía de los microorganismos y las enzimas' es, además de un gran libro de referencia de la técnica del fermentado, una biblioteca viva de procesos, un mapa de sabores en expansión, un vocabulario propio que pone palabras -y métodos- a lo que durante siglos ha sido intuición.

Los autores y autoras del libro opinan que es un momento clave para la cocina contemporánea, donde la fermentación deja de ser técnica para convertirse en lenguaje creativo. Por ello, este libro cristaliza una idea: la fermentación no es pasado, es futuro en movimiento, ya que todo puede fermentar.

La fermentación constituye un proceso colaborativo con una huella trascendental en la historia, a partir de la acción invisible y conjunta de microorganismos de diversa naturaleza, regulados en mayor o menor medida por seres humanos. Este acto de transformación se aborda en este libro desde la perspectiva de las ciencias gastronómicas, descubrir cómo bacterias, levaduras y enzimas actúan sobre ingredientes y procesos para aportar sabores, aromas y texturas únicos, además de oportunidades para conservar productos, abonar nutrición o, incluso, aportar soluciones sostenibles a la alimentación.

Alentar la capacidad creativa en la fermentación

De la mano de Basque Culinary Center y junto con expertos de la ciencia y de la vanguardia culinaria se accede a metodologías y herramientas de trabajo para elaborar tus propios fermentos y activar tu propia capacidad creativa. Y te invita a mirar la fermentación como la expresión de una relación evolutiva profunda y compartida que hoy se traduce en un campo estimulante donde convertir ingredientes comunes en escenarios llenos de sabor, vida y diversidad.

Mondragon inspira el cambio educativo en Costa Rica

UNA DELEGACIÓN DE ALTO NIVEL DEL MINISTERIO DE EDUCACIÓN PÚBLICA Y LÍDERES ACADÉMICOS DE COSTA RICA HA CONCLUIDO UNA PASANTÍA ESTRATÉGICA EN MADRID Y EUSKADI PARA CONOCER DE PRIMERA MANO EL MODELO EDUCATIVO Y DE CONEXIÓN CON LA EMPRESA IMPULSADO POR LA FACULTAD DE EMPRESARIALES.



Visita de la comitiva de Costa Rica.

Facultad de Empresariales | El objetivo ha sido identificar referentes reales que puedan contribuir a la modernización del currículo nacional, la formación docente y el impulso de una educación más conectada con la empleabilidad, el emprendimiento y la innovación.

Tres focos estratégicos

Más allá de una visita institucional, la agenda ha sido diseñada como una experiencia aplicada para que los representantes costarricenses regresen con referencias concretas trasladables a su propio ecosistema educativo.

Se ha articulado en torno a tres grandes objetivos. El de comprender el modelo dual y la FP vasca. La delegación ha podido conocer cómo funciona en la práctica el esquema de relación entre centros educativos y empresa que caracteriza al entorno Mondragon: Conexión estructural entre formación y tejido productivo; Alta empleabilidad del alumnado; y Cultura de colaboración como base del sistema.

Este enfoque permite entender cómo la educación puede diseñarse desde la realidad del trabajo y no desde una lógica exclusivamente académica.

El segundo objetivo ha sido el de explorar innovaciones curriculares y formación emprendedora. Durante su paso por la Facultad de Empresariales los participantes profundizaron en metodologías de aprendizaje activo como las impulsadas desde Mondragon Team Academy; Modelos como LEINN basados en aprender haciendo.

Desarrollo de proyectos reales como parte del proceso formativo; e Integración del emprendimiento como competencia educativa. Este enfoque muestra cómo es posible evolucionar desde un currículo tradicional hacia modelos que fomentan autonomía, liderazgo y capacidad de innovación.

Y el tercer objetivo ha consistido en conocer experiencias de innovación abierta e incubación, conociendo in situ Laboratorios de innovación como GOe (Gastronomy Open Ecosystem); modelos de venture building; entornos de incubación vinculados a la universidad; y empresas que colaboran activamente en procesos formativos.

Este bloque ha permitido visualizar cómo los sistemas educativos pueden convertirse en motores de desarrollo económico y social.

C'Mon Guys, BKI BOX eta NCLIC Shakespeare txapelkun, FLL Euskadi-MONDRAGONen

BKI BOX (BERA KRUZ IKASTOLA, MARKINA-XEMEIN), NCLIC SHAKESPEARE (NC LEARNING INVESTIGATION CENTER, GASTEIZ) ETA C'MON GUYS (MADRE DE DIOS IKASTETXEA, BILBO), IKASTETXEE-TAKO TALDEAK IZAN DIRA FLL EUSKADI-MONDRAGON TXAPELKETAKO IRABAZLEAK. APIRILAREN 11IN BURGOSEN JOKATUKO DEN ESTATU MAILAKO FINALERAKO TXARTELA LORTU ZUTEN HIRUEK.



FLL txapelketan taldeak burubelarri.

Goi Eskola Politeknikoa | Zientzia, teknologia eta jai giroa nagusitu ziren FLL Euskadi-MONDRAGON txapelketaren zazpigarren edizioan. Aurtengo edizioan, lehen aldiz, ekitaldia bi agertokitan banatu da: Arrasaten, ohikoa den bezala, Iturripen, eta aurtur lehenengoz Mondragon Unibertsitateko Bilbao AS Fabrik campusean ere. Bi egoitzak batu ia 500 gaztek (67 talde), ehunka boluntariok eta harmailak bete zituzten senideek goiz ahaztezin bat bizi izan zuten, talde lana eta robotika uztartuz. Zirrara, musika (Xaibor DJ-a eta Mauxitxa txaranga lagun) eta elkarrekiko laguntza izan ziren Erronka Garbia zigiluaren jasagarritasunarekiko konpromisoarekin ospatutako finalaren osagai nagusiak.

Gazteek lurpeko sekretuak arakatu zituzten UNEARTHED erronkari esker. Arkeologiatik abiatuta gure iragana ulertu eta etorkizun hobe bat eraikitzeke proiektu berritzaileak garatu zituzten EAEko 68 ikastetxetako 3.400 ikasletik zuten arazo konplexuei irtenbide sortzaileak emateko gaitasuna dutela, betiere FIRST balioetan (elkartasuna,

pentsamendu kritikoa eta inklusioa) oinarrituta.

Bokazio zientifiko-teknologikoak piztu

Gazteen artean bokazio zientifiko-teknologikoak (ZTIM) pizteko helburuak bat egiten du erabat Mondragoneko kooperatiben filosofiarekin. Hezkuntza proiektu honi eskutik helduta, zientzia bertatik bertara bizitzeko aukera ematen zaie ikasleei. Horregatik, Innobasquek, Mondragon Unibertsitateak eta Mondragonek antolatutako finalak aliantza indartsua osatu du taldeko hainbat kooperatibarekin; eta jaso du erakunde hauen laguntza: Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Arrasateko Udala.

Azken batean, FLL Euskadiren xedea ikastea, sortzea eta prozesuaz gozatzea da. Lehia osasuntsua bultzatuz, Explore (6-9 urte) mailako talde guztiak euren esfortzua aitortzen duen domina jaso zuten, eta Challenge (10-16 urte) mailan, berriz, ikasleen lan bikaina sari desberdinen bidez eskertu zen.

EKAIN LARREA ARANGUREN

“Niretzat eramangarria da entrenamendua eta lehia ikasketekin uztartzea”

REAL SOCIEDAD ATLETISMO TALDEAREKIN LEHIAN ARITZEN DEN INGENIERITZA IKASLE ANTZUOLAR HAU OSO FIN DABIL AZKEN HAMARKADAN BERE BI ANAIEKIN BATERA. EUSKADIKO ZEIN ESPAINIAKO TXAPELKETETAN NABARMENTZEN DABIL GERO ETA GEHIAGO ETA OSO GUSTURA DAGO.



Ekain Larrea ingenieritza ikasle eta korrikalaria.

Goi Eskola Politeknikoa | Zer ikasten zabilta? Ingenieritza Mekatronikoa ikasten nabil, 4. maila egiten nabil.

Atletismoan aritzen zara, zein espezialitatetan? Hasieratik aritu zara horretan edo atletismoaren beste alor batzuk ere praktikatu izandituzu? Bai, atletismoan aritzen naiz. Erdi fondo eta fondoko distantzietan aritzen naiz eta betidanik ibili izan naiz arlo honetan, 1.500m eta 10.000m arteko tartean orokorrean. Neguan krossak ere egiten ditut.

Zenbat urterekin hasi zinen? 8-9 urte inguru nituen hasi nintzen atletismoan. Orduetik ez dut utzi.

Zer da orain arteko lorpenik esanguratsuena zuretzat atletismoaren alorrean?

Bat aipatzekotan, u20 mailan Espainia-ko txapelketan lortutako 3. postua.

Nola uztartzen dituzu ikasketak eta entrenamendu eta txapelketak? Zein da gakoaguztia ahalik eta ondoen joan dadin? Orokorrean denbora izaten dut klaseak amaitu ondoren entrenatzeko, eta kanpoan lehiatu behar dudanean normalean asteburuan bidaiatzen dut. Beraz, egunerokotasunean nahiko eramangarria da niretzat.

“Markak hobetzen joatea eta Ingenieritza bukatzea dira 2026ko helburuak”

Zein da 2026ra begira duzun helburu nagusia, atletismoan zein bizitzako bestelako alorrean? Atletismoan, nire markak hobetzen joatea eta horrekin tituluren bat baldin badator, hobeto. Bestalde, ikasketa arloan, aurtan Ingenieritza bukatzea.

Alumni

“Ambereseko egonaldia nire bizitza markatu zuen esperientzia izan zen”

GALLARTAKO **AITOR CARAZO**K HUMANITATE DIGITAL GLOBALAK GRADUA EGIN DU HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAN. GAZTETATIK EKIMEN ETA ELKARTE DESBERDINETAN PARTE HARTU IZAN DU, ETA HORTIK DATOR BERE SENA.



Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Zer dela eta erabaki zenuen Humanitate Digital Globalak ikastea? Eta zer da aurkitu zenuena?.

Soziala eta disziplinar tekoa zen zerbaiten bila jo nuen, praktikoa izango zena; eta munduaren konplexutasuna ulertzen saiatu. Ausartak izan ginen gradu "berri eta arraro" horren lehen promozioan apustu egiten. Gauza interesgarriak aurkitu nituen: bakoitza bere backgroundean jantzita zegoen ikaskide talde oso ona; autonomian, hausnarketan eta ideien partekatzean oinarritutako goi ikasketak; eta identitatearen eta aniztasunaren aurpegi berri asko.

Non egin zenituen praktikak? Eta egonaldia? 2. eta 3. kurtsoetan Etxepare Euskal Institutuan egin nituen praktikak, non kultur diplomaziaz eta haren garrantziaz ikasi nuen. Quebec, Japonia eta Flandriarekin egindako proiektuak oso aberasgarriak izan ziren, batez ere Flandriakoa. Hala, hirugarren mailan Flandriara joan nintzen Erasmusean, Amberesera

(Antwerpen) eta egonaldi hori nire bizitza markatu zuen esperientzia izan zen. Han European Project Semester proiektua jarraitu eta ekitaldien kudeaketan aritu nintzen. 4. mailan, aldiz, GBLa praktikaldi baten oinarrituta idatzi behar genuen eta nire kabuz Italiara, Bolognara jo nuen. Burugogkeriari esker lortu nuen GBLa han idaztea Mondragon Unibertsitatea eta fundazioaren arteko ikasketa akordioaz eta Eusko Jaurlaritzak eskainitako dirulaguntzarekin. Ondoren, karerra bukatuta, Eusko Jaurlaritzak eskainitako Hezkuntza Esparrutik Lan Mundurako Transizioa proiektuaren bidez Agirre Lehendakaria Centerren hiru hilabetetako egonaldia egin nuen.

Zertan zabilta orain Bolognan? Eta zer asmo daukazu? GBLa egin nuen elkartearen nabil lanean. Eta, horrez gain, nazioarteko ESN sarean bolondres nabil ebento kultural, italiar ikastaro eta bestelakoetan. Nahiko nuke Euskal Herrira eramane Bolognan egiten diren ekimen, politika eta ikuspuntuak, gureru moldatuta.

Ikasleak 3-4 kilo gizontzen dira lehen urtean

CUENCAKO IKERKETA SOZIOSANITARIOEN ZENTROAK EGINDAKO IKERKETA BATEN ARABERA, UNIBERTSITATEAN IKASTEAK GRADUKO LEHEN URTEAN HIRU ETA LAU KIROL ARTEAN GIZENTZEA DAKAR.



Garrantzitsua da, gazte denboran ere, bizitza sedentarioari bizkarra ematea.

Kirola | Ikasgeletan, egoera guztiz sedentarioan, sei edo zazpi ordu mahai baten aurrean eserita egotera behartuta bagaude, ez da harritzekoa egoera hau ematea. Hala, ikerketek ikasgelen antolaketa aldatzea iradokitzen dute, eskolaurreko etapetan bezala, ikasgelen espazioetan hutsune gehiago sortuz dinamikoagoak egiteko. Hala ere, ikasgelen antolaketa aldatzearekin ez da nahikoa. Ikasleek aldaketa nabariak jasaten dituzte unibertsitateko etapa hastean. Asko etxetik joaten dira unibertsitateko lehen urtean, eta honek elikadura ohituraren aldaketak ekarri ohi ditu. Sukaldean aritzeko esperientzia faltak edo gogo faltak ultraprozesatutako janarietara jotzeko aukera areagotzen du. Gainera, honi alkoholaren kontsumo igoera ere gehitu behar zaio. Hala, jaterako orduan dugun autokontrola murriztu eta kaloria asko ekartzen ditu.

Horrez gain, unibertsitatera sartzerakoan estres maila areagotu egiten da kasu askotan, batez ere aldaketetara egokitzeko zailtasunak dituzten ikasleetan. Estresak kortisola areagotu dezake, eta honek jateko gogo eta gantz metaketa handiagotu. Hala, antsietatea ekiditeko edo murrizteko gehiago jaten da.

Lo orduen aldaketa ere faktore garrantzitsu bat da gizentze prozesuan. Lo gutxi egiteak grelina eta leptina hormonak (gose hormonak) desorekatzen ditu, nagikeria handiagoa eta jateko gogoaren erregulazio okerragoa eraginez.

Gainera, ikasleen jarduera fisikoa murriztu egiten da. Eskolatan Gorputz Hezkuntzako saioak ematen dira, baina unibertsitatera heltzean ikasgai hau kentzen da. Horren ondorioz asteen zehar ez dute nahitaezkoa den jarduera fisikoa egiten, eta kirola gustuko ez dutenen jarduera fisiko maila asko murrizten da. Honek errendimendu akademikoan eragin negatiboa izan ohi dezake.

Aipatutakoa ekiditeko jarduera fisikoa erraminta paregabea da. Jarduera fisikoa eta ohitura osasuntsuak sustatzeak errendimendu akademikoan eragin positiboa ekartzen du. Gainera, ongizate mentala hobetzeko erabilgarria da, estresa eta antsietatea murriztuz. Lo ohiturari dagokionez, jarduera fisikoak kortisola gutxitzen du eta endorfinak askatu. Oheratzean burua erlaxatuago egon dadin laguntzen du, lo ohituren hobekuntza ekarriz.

Beraz, ondorio gisa, oso garrantzitsua da Mondragon Unibertsitatean egiten den bezala, unibertsitateek prebentzio neurriak eskaintzea. Unibertsitateen helburua ez da soilik ikasleak akademikoki formatzea, baizik eta haien ongizate integrala lortzea. Horregatik, Mondragon Unibertsitateak ohitura osasuntsuak sustatzen dituen programa eskaintzen du Kirol Zerbitzuaren bidez.

Programa honetan, aste barruan zein asteburutan egin daitekeen ekintza eskaintza zabala luzatzen zaie unibertsitateko ikasle zein langileei campus guztietan: taldean, norbere kabuz, lehia edo ikastaro formatuan... mota askotariko jarduerak antolatzen dira prezio murriztuetan.

Klima Bai! lehiaketako irabazlea

ESTHER ESTITXU FERNANDEZ MUKO IKASLEAK IRABAZI DU GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN "KLIMA BAI!" ERRONKA. INFORMATIKA INGENIARIAK BIZIKLETA ELEKTRIKOA JASO DU EKONOMIA ZIRKULARRA SUSTATZEAGATIK.

Goi Eskola Politeknikoa | Gipuzkoako Foru Aldundiak 2. urtez martxan ipinitako Klima Bai! erronka Mondragon Unibertsitateko Informatika ingeniari-tzako ikasle batek irabazi du, Esther Estitxu Fernandezek eta berak eskuratu du bizikleta elektrikoa.

Azken urteetan Goi Eskola Politeknikok nabarmen sendotu du ikasleen artean Garapen Jasangarriko Helburuen lanketa eta horren baitan ikasketa programetan egokitzapenak egin dira, urtero gai desberdinen inguruko jardunaldiak landuz.

Fernandezek oso pozik hartu du saria eta aitortu du iaz parte hartu ezinda gelditu zela eta aurten gogoz aritu dela lehiaketan. Ekonomia zirkularren garrantzia azpimarratu du eta kezkatuta agertu da herritar askok birziklatzeari garrantzia ematen ez diotelako.

Are gehiago, proposamena luzatu du informatikari gazteek plataformak sortu ditzaten, besteak beste, jendeak objektuak trukatu edo partekatu ditzaten, edo hondakinen biltzea hobetu dezaketen programak, isuriak gutxitzeko.



Arizmendarrietaren

TXOKOA

Jose Maria Arizmendarrietaren ondarea, filosofia eta baloreak. Gogoeta liburuxka.

EUS

ES

"Eskubide indibidualei bezainbeste edo gehiago begiratu behar zaie komunitatekoiei". (Gogoetak 337)

"Hay que mirar tanto o más que a los derechos individuales a los comunitarios". (Pensamientos 5337)

Jardunaldiak

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko 50. urteurrena

APIRILA. Ongizatea gara Zerbitzu Psikologikoa duten unibertsitateen sareko urteroko kongresua
Apirilak 23 eta 24 - Bilbao AS Fabrik

Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabiltza oinez
Antzezlanak. Ttanttaka konpainia
Apirilak 29 - 18:30ak - Eskoriatzako Zaldibar Antzokia

Gazteen osasun mentaltaren inguruan. Mahai-ingurua
Aretxabaletako campusa

Osasun astea
Apirilak 20-24 - Campus guztietan

MAIATZA. Komunikatzaileak gara **Fakultateko ikasle ohien topaketa**
Maiatzak 8 - Eskoriatzako eta Aretxabaletako campusak

Buatxabalta Ikasleen jaia
Maiatzak 21 - Aretxabaletako campusa

Txomin Txapel. Ikasleen jaia
Maiatzak 28 - Eskoriatzako campusa

Hiruak bat Ikasleen jaia
Maiatzak 28 - Bilbao AS Fabrik

ATE IREKIAK

Maiatza

BUSINESS DATA ANALYTICS

2026-05-20 BILBAO AS FABRIK
AURREZ AURREKOA 18:00
GAZTELERAZ

2026-05-07 BIDASOA
AURREZ AURREKOA 17:30
GAZTELERAZ

2026-05-07 OÑATI
AURREZ AURREKOA 17:30
ELEBIDUNA

2026-05-09 DONOSTIA BCC
AURREZ AURREKOA 10:30
GAZTELERAZ

HAUR HEZKUNTZA

2026-05-16 ESKORATZUA
AURREZ AURREKOA 11:00
EUSKARAZ

HUMANITATE DIGITAL GLOBALAK

2026-05-16 BILBAO AS FABRIK
AURREZ AURREKOA 11:00
ELEBIDUNA

IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA

2026-05-16 ARETXABALETA
AURREZ AURREKOA 11:00
EUSKARAZ

KULTUR ETA SORMEN INDUSTRIAK

2026-05-16 ARETXABALETA
AURREZ AURREKOA 11:00
EUSKARA

LEHEN HEZKUNTZA

2026-05-16 BILBAO AS FABRIK
AURREZ AURREKOA 11:00
ELEBIDUNA

2026-05-16 ESKORATZUA
AURREZ AURREKOA 11:00
EUSKARA

BUSINESS DATA ANALYTICS

2026-05-09 MADRID (TEAMLABS)
AURREZ AURREKOA 10:30
GAZTELERAZ

2026-05-16 MALAGA (TEAMLABS)
AURREZ AURREKOA 10:30
GAZTELERAZ

2026-05-23 BARCELONA
(TEAMLABS) AURREZ AURREKOA
10:30 GAZTELERAZ

UNIBERTSITATE MASTERREN INFORMAZIO SAIOAK

Beste batzuk

- 2026-05-16 BILBAO AS FABRIK
AURREZ AURREKOA 11:00
ELEBIDUNA
 - 2026-05-16 ESKORATZUA
AURREZ AURREKOA 11:00
EUSKARA
 - 2026-05-09 MADRID (TEAMLABS)
AURREZ AURREKOA 10:30
GAZTELERAZ
 - 2026-05-16 MALAGA (TEAMLABS)
AURREZ AURREKOA 10:30
GAZTELERAZ
 - 2026-05-23 BARCELONA
(TEAMLABS) AURREZ AURREKOA
10:30 GAZTELERAZ
- MÁSTER DE FORMACIÓN PERMANENTE EN FABRICACIÓN ADITIVA INDUSTRIAL
29/09/2026 - 09/04/2027
Semipresencial/Ordizia
 - MÁSTER DE FORMACIÓN PERMANENTE ONLINE EN CIBERSEGURIDAD
16/10/2026 - 23/07/2027
Online
 - MICROCREDENCIAL UNIVERSITARIA EN CERTIFICACIÓN PMP® - PMP IS A REGISTERED MARK OF THE PROJECT MANAGEMENT INSTITUTE INC.
18/09/2026 - 14/01/2027
Arrasate-Mondragón
 - ITINERARIO FORMATIVO EN GESTIÓN DE PROYECTOS
Consúltanos
Online
 - ITINERARIO FORMATIVO EN CIBERSEGURIDAD TÉCNICA
Consúltanos
Online
 - ITINERARIO FORMATIVO EN CIBERSEGURIDAD CORPORATIVA GRC (GOBIERNO, RIESGOS Y CUMPLIMIENTO)
Consúltanos
Online



muniverstas

MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ALDIZKARIA



**Mondragon
Unibertsitatea**

MUniverstas inkestaren zozketaren irabazlea:

Ganadora del sorteo de la encuesta Muniverstas:

Saria:

2 pertsonentzat 2 gau logela bikoitz batean gosari eta afariarekin edo 2 pertsonentzat 2 gau apartamentu baten afaria barne.

Premio:

2 noches para 2 personas en habitación doble con desayuno y cena o 2 noches para 2 personas en un apartamento con cena incluida.



Mónica Nogales Núñez
Urretxu Gipuzkoa.

ZORIONAK!





LABORAL Kutxa Mondragon Unibertsitatea txartel berria.

Gainera, Bizum LABORAL Kutxan baduzu aktibatuta:

EZ

du mantentze-komisiorik txartelean.

EZ

du komisiorik, LABORAL Kutxaren aldetik, atzerriko kutxazainetan¹.

EZ

du komisiorik dibisa aldatzeagatik.

Sustapeneko txartelaren abantailez baliatzeko, beharrezkoa da 18tik 29 urtera bitartean (biak barne) izatea.

Informazio gehiago, laboralkutxa.eus-en.



**Mondragon
Unibertsitatea**



**LABORAL
kutxa**

(1) LABORAL Kutxak ez du komisiorik kobratuko atzerriko kutxazainetan. Kutxazainaren jabeak komisio bat ezar lezake kutxazaina erabiltzeagatik (LABORAL Kutxak ez).